



AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Genero berdintasuna, jendarte osoaren etorkizunerako giltza
- ↪ Hitzarmena dantzan.com elkartearekin
- ↪ *Problema de impago en las obras de Oriamendi*
- ↪ Hezkidetza planak

BEASAIN, HERRI BIZIA

- ↪ Emakumeen nazioarteko eguna- martxoak 8
- ↪ Martxoko ekintzak

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Elkarriketa Oier Araolaza, dantzan.com-eko koordinatzaileari

APIRILEAN BEASAINEN...

**Igartzako
ezpata dantza
berdintasunean
eredugarri**

**La espata-
danza de
Igartza, un baile
en igualdad**

GUTUNA

Irma Arnaiz

Berdintasun
zinegotzia



GENERO BERDINTASUNA, JENDARTE OSOAREN ETORKIZUNERAKO GILTZA

Genero kontua, kulturala den zerbait da eta beraz, kulturala den heinean, aldagarria da. Sarritan, generoa, sexuarekin nahastu ohi da, baina sexua, zerbait biologikoa da, ez beste ezer. Mugimendu filosofikoa den Feminismoak, emakumeek eta gizonek, guztiak pertsonak izanik, eskubide, aukera eta ardura berdinak izan behar dituztela aldarrikatzen du.

Emakume eta gizonen aukera berdintasuna, dagoeneko giza eskubidetzat hartzen da, Nazio Batuen Erakundea tarteko, baina oraindik ere, bereizkeria eta desberdintasun egoerak ematen dira. Horren ondorioz, emakumeen aurkako indarkeria dugu arazo larriena mundu mailan.

Indarkeria kasuak eta ezberdintasun egoerak dira, hain juxtu, berdintasunaren bidean gainditu behar ditugun oztopoak. Zentzu horretan, Beasaingo Udalak eman ditu hainbat pauso. Goierri mailan indarkeria pairatzen duten emakumei arreta egokia eta koordinatua emateko protokoloaz gain, udal barruan, emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako salaketa protokolo berria eratu da; herriko emakume talde feministen eskaerari erantzunez, egoera gordin horretan daudenei modu egokian nola lagundu ikasteko, trebakuntza ikastaroa antolatuko da. Prebentzio arloan beriz, hitzaldiak, tailerrak eta ikastaroak antolatzen dira udal eta heritarren sentsibilizazio, kontzientizazio eta formakuntzarako. Hezkuntza mailan, hezkidetza planak antolatu eta txertatzen ari dira, ikastetxeetako eguneroko jardueran eragina izan dezaten.

LOGRAR UNA SOCIEDAD EQUITATIVA Y RESPETUOSA ES UN RETO PARA TODA LA CIUDADANÍA

La igualdad en derechos y deberes para mujeres y hombres es un derecho reconocido por la normativa vigente, pero necesita la implicación tanto de la ciudadanía, como de las instituciones, para lograr cambios reales en la sociedad actual. Siendo como es la violencia contra las mujeres, la consecuencia más cruel de una estructura y organización social mundial desigualitaria, desde el Ayuntamiento consideramos importante sensibilizar, concienciar y formar en materia de Género e Igualdad a todo el personal trabajador del Ayuntamiento y a la ciudadanía en su conjunto para que dicha perspectiva sea aplicada tanto en la gestión municipal como en el día a día del municipio.

DANTZA TRADIZIONALA SENDOTU ETA EGONKORTZEA HELBURU DUEN HITZARMENA SINATU DU UDALAK DANTZAN. COM ELKARTEAREKIN



Euskal dantza gure ondarearen parte izanda eta Beasainen dantza ekimenek zein taldeek hartu duten indarra eta garrantzia ikusita, Udalak, bide horretan beste urrats bat eman nahi izan du. Euskal kulturaren aldeko apustuaren baitan kokatzen da Dantzan.com elkartearekin sinatu berri den hitzarmena.

Legegintzaldirako elkarlan hitzarmen honek helburu bikoitza du: euskal dantza tradizionala sendotzea eta egonkortzea eta Beasain dantzaren erreferente bihurtzea. Helburu horiek lortzeko, dantzan.com elkarteak euskal dantza irakasleak formatzeko ikastaroak antolatuko ditu, urtero bana, eta Beasainen errotzen doazen dantza ekimenak sendotzeko eta egonkortzeko plana garatu eta aurkeztuko du. Era berean, Aldundiak dantzaren sustapenerako dituen ekimenen artean Beasain kokatzeko ahalegina egingo du udalak, Beasain Gipuzkoa mailan euskal dantzaren erreferentziatzko gune bihurtzeko.

“Fortalecer la danza tradicional en Beasain es el objetivo que persigue el convenio suscrito por el Ayuntamiento y dantzan.com. En base a este acuerdo, dantzan.com impartirá cursos de formación al profesorado y elaborará un plan para la promoción de las actividades de baile tradicional que se llevan a cabo en el municipio. Asimismo, se intentará incluir Beasain dentro de las iniciativas que organiza la Diputación para impulsar el baile tradicional, a fin de lograr que Beasain sea un referente en esta materia”

“Oriamendi kaleko obrak 2014an amaitu baziren ere, oraindik itxi gabe dago obra horien gaineko likidazio espedientea, obra zuzendaritzak, udal arkitekto teknikoak eta obrak aurrera eraman zituen enpresak aurkeztutako txostenen artean 200.000 euro baino gehiagoko aldea dagoelako. Inork ez du bitartekotzarik egin, eta ez da irtenbiderik aurkitzen saiatu. Ondorioz, obrez arduratu zen enpresa behin betiko txostenak zehazten duen diru-kantitatea kobratzeko zain dago. Arazoari irtenbidea emateko udalak likidazio txosten inpartzial berri bat eskatu du”

Desde que finalizaron en diciembre de 2014 las obras de la calle Oriamendi, sigue aún sin cerrarse el expediente de la obra al estar éstas pendientes de ser recepcionadas y liquidadas. Durante todo este tiempo, sin un informe de liquidación final, la empresa encargada de llevar a cabo las obras no ha podido cobrar y sigue a la espera de que se le abone lo que estipule la conclusión de dicho expediente.

El desacuerdo tiene su origen en las discrepancias entre las propuestas de liquidación presentadas por la dirección de obra, la contrata que ejecutó la obra y el técnico municipal. Las propuestas de la contrata y del técnico municipal recogen varias modificaciones y correcciones realizadas en el transcurso de la obra y son similares entre sí, pero hay una diferencia de más de 200.000€ respecto al informe de liquidación de la dirección de obra que realizó el proyecto.



Pese a haber transcurrido todo este tiempo, no se ha dado hasta ahora ningún paso en este tema. La falta de mediación y actuación al respecto ha enquistado el problema, de manera que el actual equipo de gobierno se ha visto en la obligación de tener que mediar y ha solicitado un nuevo informe imparcial ajeno a las partes implicadas para solucionar este problema tan grave, tanto por la demora en la recepción y liquidación de la obra, como por las consecuencias que ello conlleva.

HEZKIDETZA PLANAK BEREN ESKOLA PROIEKTUETAN TXERTATZEN ETA EGONKORTZEN ARI DIRA BEASAINGO IKASTETXEAK

Batzuk duela 3 urte jarri zuten martxan proiektua, beste batzuk duela urte bete eta beste batzuk berehala jarriko dute. Pauso garrantzitsua da, hezkidetza planean txertatzean, eskolek, konpromisoa hartzen dutelako, beren eskola proiektuan berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa esparru eta asignatura guztietan zehar lerro gisa lantzeko konpromisoa, hain zuzen.

Eskolak aldaketa handiak hasteko leku pribilegiatuak dira, baina bakarrik ezin diote lan horri heldu, gizarte eragile eta erakundeek laguntza ere behar dute. Horiek

horrela, Eusko Jaurlaritzak hezkidetza planak sustatu eta eskoletan txertatuak izan daitezen baliabideak jartzen ditu eta proiektu honek eskolen arteko koordinazioa sustatzeaz gain, udalaren eta ikastetxeen arteko hartu-emana ere areagotzen du. Udalak hezkidetza planen txertatze eta egonkortze maileri jarraipena egin eta eskolei lan horretan laguntza eskaintzen die, beharrezkoa duten kasuetan. Helburua da, etorkizunera begira, modu koordinatuan eta eskolekin elkarlanean hezkidetza planarekin lotura izango duten eta plan horri jarraipena emango dioten ekintza zehatzak garatzea.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA- MARTXOAK 8

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarizko balioa da demokraziarentzat. Tokiko gobernua herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, desberdintasunei aurre egiteko neurriak hartu eta emakumeen eskubideak aldarrikatu eta sustatuko ditu.



Emakumea eta islama hitzaldia udal aretoan



Transfeminismoa hitzaldia Igartzan, Josebe Iturriozen eskutik



Euskaltegiak martxoaren 8ko ospakizunen harira antolatutako, M-Lehiaketaren irabazlea



Oriako Lamiak talde feminista aurkeztu zen martxoaren 7an



Martxoaren 8aren ospakizuna ludoteketan



Las mujeres y el entorno laboral mahai ingurua udal aretoan

Compromisos por la igualdad:

- Adoptar las medidas necesarias para CONSEGUIR UNA PARTICIPACIÓN IGUALITARIA de mujeres y hombres en los procesos de toma de decisiones.
- Ratificar la IGUALDAD como ELEMENTO CENTRAL DE NUESTROS VALORES y hacer que ocupe un puesto central en la agenda política, integrándola en todas las políticas y legislaciones relevantes.
- PROMOVER LA IGUALDAD a nivel local mediante acciones concretas, destinando a ello las herramientas y los recursos necesarios.
- DENUNCIAR Y COMBATIR toda forma de VIOLENCIA perpetrada contra las mujeres en la vida pública y privada.



Bareak merkatarik elkartek antolatutako stock azoka



Igartza Musika: Donostiako Orfeo gaztearen emanaldia



Herriko dantza taldeen dantza ikuskizuna Usurben



XXVII. idazlan lehiaketako sari-banaketa



Leire Nazabal, Euskadiko txapeldun Gimnasia erritmikoan



Beasain Kirol Elkarteko Euskal Ligako gazte taldeak Nazional Ligara igotzea lortu du



Beasaingo VI. Herri lasterketa eta txirrindulari proba





Oier Araolaza

Dantzan.com-eko koordinatzailea, antropologoa eta Mikel Laboa katedrako ikertzailea.

Euskal dantza tradizionalak genero ikuspegitik ikertzen dituen lan batean zabilta murgilduta.

Doktorego tesia egiten ari naiz. XX. mende hasieran, euskal dantzaren alorrean, emakume dantzariaren figura eta estereotipoa nola eraiki zen ikertzen nabil, zehazki.

Tradizionalki, euskal dantzetan (garaian-garaiko gizartearen isla izanik) gizonetzkoen protagonismoa emakumezkoenaren gainetik egon al da?

Bai, emakumea, gizartean bertan, lan, botere eta harreman sisteman bigarren mailara baztertua izan den neurri berean, dantzan ere, sistematikoki baztertua izan da. Baina horrek ez du esan nahi dantzatu ez duenik, pentsatu baino dezente gehiago dantzatu baitu, bazterketa eta debekuak ugariak izan arren.



Zein ondorioetara iritsi zara orain arte egindako ikerketa horretan?

Ikerketaren lehen urtean naiz eta oraindik goiz den arren ondorioak ateratzeko, nire hipotesiak dira:

1. Emakumeek dantzan izan duten parte hartzea eta garrantzia euskal dantza taldeetan pentsatu eta erreproduzitu izan dena baino dezente handiagoa izan dela.
2. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran dantza erreperitorio, dantzakera eta janzkera bereziak asmatu eta egokitzean, euskal dantzetan emakumeen parte hartzea erabateko berdintasunean garatzeko mugak eta oztopoak eraiki ziren. Poxpolinen figura asmatu zen emakumeentzat, eta hortik aurrera, soinekoarekin (gonarekin) dantza egitera eta ezaugarri ustez femeninoak zituzten dantzak egitera (makil-txiki, zinta-dantza, arku-dantza, sagar-dantza,...) bideratu ziren, makila handi, ezpata eta bestelako ezaugarri ustez maskulinoak dituzten dantzetan parte hartzeko aukera itxiz.

Dena den euskal dantza taldeetan beti sumatu izan da mutilen falta. Neska gehiago izan dira mutilak baino.

Oro har gizartean badagoelako genero bereizketa bat jardueren arabera ere. Gizonetzkoak, ume-ume direnetik kirol lehiakor eta hegemonikoetara bultzatzen dira, eta emakumeak beriz, jarduera ludiko, jostagarri eta kantagarrietara, tartean dantza.

“Beasain aitzindaria izan da genero berdintasuna euskal dantzetan aplikatzen”



Zein pisu izan dezake tradizioak euskal dantzen alorrean, genero ikuspegitik, aldaketak eman ez daitezen?

Tradizioa aitzakia moduan erabiltzen da gehienetan. Tradizioa etengabe aldatzen eta egokitzen ari da, eta hain zuzen ere, garai bakoitzeko gizarte balioetara egokitzeari esker egiten dute aurrera tradizioek. Egokitzen ez diren tradizioak desagertu egiten dira. Horrez gain, gure dantzaren historia oso gutxi, eta maiz desitxuratuta, ezagutzen dugu, eta ondorioz, askotan tradizioaren izenean aldarrikatzen ditugun zenbait kontu, justu kontrara gertatu dira historian. Horren adibide garbia da emakumeek dantzetan izan duten parte hartzeari buruz esan izan dena, alegia, ez zuela dantzatzen, eta ikerketa historikoek berriki agerian utzi dutena, alegia, baietz, dantzatzen zutela eta uste baino gehiago gainera.

Beasainen, egun, euskal dantzetan ematen den berdintasun ikuspegia ez dela beste inon ematen aipatu izan duzu...

Zehazki esango nuke aitzindaria izan dela genero berdintasuna euskal dantzetan aplikatzen. Igartzako ezpata-dantza, lehen ezpata-dantzetakoa da neskak eta mutilak erabateko berdintasunean dantzatzen dutena. Aurtzaka eta Ostadar taldeek sentsibiltate, jarrera eta koherentzia handia erakutsi dute generoaren kudeaketan dantza taldeon ekitaldietan, eta oro har, euskal dantzaren lehenengoetako taldeak izan dira parekidetasun irizpideak aplikatu dituztenak beraien jardunean.





Eizu gaztelekua

Ordua 17:00

- 1 Carting-era irteera (gaztelekutik)
- 2 Txirinduan ibilaldia (gaztelekutik)
- 3 Play eta Wii jolasak
- 8 Sexualitate tailerra
- 9 Eineizu nerabeen parte hartzeko gunea
- 10 Play eta Wii jolasak
- 14 Mahai Jolasak
- 15 Informazio txokoa (nerabeentzako)
- 16 Sukaldaritza tailerra (burritoak)
- 17 Bingoa
- 22 Autodefentsa ikastaroa (1go saioa)
- 23 Bideo emanaldia
- 24 Play eta Wii jolasak
- 28 Mahai jolasak
- 29 Autodefentsa ikastaroa (2. saioa)
- 30 Pultsera tailerra

17:30tan sexualitate tailerra:

Izen-emate epea apirilak 3a arte (658 75 17 84) kopurua mugatua da. Fidantza 5 € (Itzuliko da).

17:30tan autodefentsa ikastaroa:

Izen-emate epea apirilak 15a arte (658 75 17 84)

Aizkorri mendizale elkarte

Mendi Irteerak:

- 10 Ehunmilak 5. Etapa: Larraitz-Ganbo-Lizarrusti
- 17 Legorreta- Santa Marina- Murumendi

Arrastaka mendi taldea

- 13-14 Korapiloak egiteko 1 ikastaroa
- 6-17 Eskalada ikastaroa: hastapena
- 23-24 Mendi irteera: Mugarra
- 30 Mendi irteera: Calcena (eskalada)

Igartza musika



- | | Hora |
|---|-------------|
| 22 Audición Didáctica en Usurbe Antzokia | 14:30 |
| 23 "Trikitixa Eguna" en el frontón de Gernika pasealekua | |
| 25 Concierto FMA TRIO en el Palacio de Igartza | 19:00 |
| 26 Concierto "Creciendo con la percusión" en el Palacio de Igartza | 19:00 |
| 27 Concierto de los profesores de la Musika Eskola en el Palacio de Igartza | 19:00 |
| 28 Concierto de Goizeresi Txistulari Taldea en el Palacio de Igartza | 19:00 |
| 29 Concierto "Musika kalean" en el frontón de Gernika pasealekua | 19:30 |
| 30 Recital de canto en el frontón de Gernika pasealekua | 19:30 |

Bertsomovieda lehiaketa

Zer da? Bertsoak dituen bideoa da. Gutxienez bertso bat izan behar du, euskaraz.

Nork eta nola hartu parte: Edonork har dezake parte, nahi adina bertsomovie aurkeztu daitezke eta bidaltzeko pausuak ondorengoak dira:

1. Lehenik eta behin, webgunera igo (youtube, vimeo, euskaltube).
2. Ondoren, bertsomovieda webgunean parte hartu ataleko inprimakia bete behar da.

Sariak: gazteak - 1.saria 300€, aipamen berezia 150€- helduak - 1. Saria 1000€, aipamen berezia 300€- ikusleen saria 500€, bertsorik onena 250€.

Epeak: lanak aurkezteko epea apirilaren 10ean amaitzen da eta apirilaren 15-22 bitarte bozkatu ahal izango da.

Sari banaketa: apirilaren 29an Beasainen

Informazio gehiagorako:

www.bertsomovieda.com

Curso: "Género e Igualdad. Nivel II"

Fechas: 6, 3, 20, 27 de mayo y 3, 10 de junio.

Horario: 17:00 -19:30

Plazo de inscripción: hasta el 28 de abril.



Beasaingo Udala

Lege gordailua: SS 403-2016